



cimasub

Donostiako
Nazioarteko Itsaspeko
Zinema Zikloa

Ciclo Internacional de
Cine Submarino de
Donostia-San Sebastián

2021 EMAITZEN MEMORIA

cimasub2021

Donostiako
Nazioarteko Itsaspeko
Zinema Zikloa

45

edizioa | edición

Ciclo Internacional de
Cine Submarino de
Donostia-San Sebastián

Sarrera doan
Entrada gratuita

18 # 19 # 20
AZAROA NOVIEMBRE

Antzoki Zaharra
Teatro Principal

🕒 19:00 - 20:50

Aquarium
🕒 12:00 - 13:30
Larunbata | 20 | Sábado

Argazkia/Fotografía: Tobias Friedrich
Ganador Cimasub 2020ko irabazlea

a favor de
unicef
Siempre adelante

www.cimasub.com

#cimasub2021



Futboleko Real Sociedad-aren
Itsaspeko Jardueren Saila
Sección de Actividades Subacuáticas
de la Real Sociedad de Fútbol

antolatzailea | organizador



EL DIARIO VASCO



patrocinatzaileak | patrocinadores



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO




eraburutzaileak | instituciones



AALDE RADIO



revista aQua



ZITI

PIE

NAVIGAR



laguntzaileak | colaboradores

01 SARRERA

Ekintzez beteriko urte bikaina amaitu berri dugu eta horregatik ez dugu aukerarik galdu nahi egindako lan guztiaren atzean egon den orori eskerrak emateko. Aipamen berezi bat egin nahiko genioke Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloa inoiz baino biziago mantentzeko ekiñean ibili den taldeari. Pertsona askoren lana da, bolondres, bideografo, argazkilari, babesle eta kolaboratzaieak besteak beste.

Gure Itsasoen maitale amorratuak izanda, hauek merezi duten moduan zaindu eta errespetatzeko mezua ernaltzen dutenak.

Zuei guztiei esker, oso urte berezia izan da eta bildutako datuek lan egiten jarraitzeko motibazioa ematen digute. 6000 ikusle inguru bildu dituen 8 ziklo. 20 ikastetxe ezberdinetatik etorritako 1700 ikasle baino gehiago bildu zituzten 14 Txikiziklo. Lehiaketarako jasotako lanak bikoiztuta, 16 herrialde ezberdinetatik iritsiak. 5 erakusleku ezberdinetan, 98 egunetan zabalduetako argazki erakusketa, lehiaketarako jaso diren 350 argazkietatik 24 anpliazioaren erakusketarekin. Gerturatu den publikoa maitemindu eta emozionatu duen maila bikaineko lanei banatutako 25 sari baino gehiago.

Pandemiak eragindako zailtasunak gaindituta, Nazioarteko Itsaspeko Zinemaldia bezalako lehiaketa baterako, azken urteotako balorazio oso positiboa egin dezakegu, aurre ikusitako prebisio guztiak zeharo gainditu dituelako hurbildutako publikoa, jasotako kritikak eta aurkeztutako lanei dagokienez. Leihaketa hau inoiz baino sasoitsuago dago, aurreko edizioetan inoiz izan ez dituen zenbakiak agerian utziz.



02 CIMASUB

Donostiako Nazioarteko Itsaspeko Zinemaldi Zikloa

Real Sociedad de Fútbol erakundearen barruan dagoen Urpeko Ekintzen sekzioak antolatuta, 1975etik lan audiobisualen difusioaren bitartez urpeko mundua ezagutarazteko eta gure itsaso eta ozeanoen errespetuan eta zaintzan kontzientziatzeko helburu nagusiarekin lan egiten duen lehiaketa da.

"Itsasoarekiko maitasunak edozerrekin ahal duenean."

45. edizioaren aurkezpen eslogana izanda, pasio eta maitasun handiarekin egindako lanaren islada da, intentsitate handiko eta emozioz beteriko ikuskizuna.

Leihaketa

Leihaketa honek lortu duen arrakasta pasioa, talentua eta itsasoarekiko maitasun amaigabea erakartzeko duen gaitasunari zor dio. Mundu zabaleko itsaspeko argazkilari eta bideografo onenen lan handietan islada duena eta planetaren bi aurpegiak azaltzen dituen. Alde batetik, gizakiaren baldarkeriak eragindako kaltearen salaketa, eta bestetik, itsaspean aurki dezakegun bizitzaren eta edertasunaren ikuspegi itzaropentsua.

Proiektzio eta erakusketak

CIMASUB, itsasoko enbaxadore, argazkilari eta itsaspeko bideografoen eta urtero nazioarteko lehiaketa hau ospatzen den zinema-areto eta erakusketa-aretoak bisitatzen dituzten milaka pertsonen arteko komunikazio-kanala da. Helburu nagusia ahalik eta leku eta pertsona gehienetara iristeko lanean jarraitzea da.



Itsaspeko Txikizikloa

Gure lehiaketako zutabe garrantzitsu bat da. Realaren Fundazioa buru izanik, 10 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako ekitaldia da eta itsasoarekiko eta ingurumenarekiko errespetuan hezteko du helburu. Itsasoaren egungo egoerari buruzko film laburren proiektzio eta klima-aldaketaren arazoari buruzko hitzaldi baten laguntzaz.



03 DATUAK

IKUSLEAK

IKUSLEAK

5.639

pertsona

1.705

ikaste

LEKUAK

12

herrialde edo
ubikazio

22

proiektzio
sesioak

14

Txikiziklo

98

egun
erakusketa
ezberdinetan

JARRAITZAILEAK

28.000

ikustaldi
cimasub.com
orrialdean

948

harpipedun
cimasub.com
orrialdera

4.311

jarraitzaile
sare
sozialetan

PARTEARTZAILEAK

PREMIOS

25

sari
banaturik

15.000

euro
sarietan

2

gurutzaldi
Indonesian
zehir opari

Cruceros Vida-ren
eskuz, **SMY Ondina**
y **MY Oceanic**
itsasontzietan

LANAK

71

argazki
galeria

39

laburmetrai

6

dokumental

HERRIALDEAK

16

herrialde
ezberdin

Espainia
Estatu Batuak
Kanada
Australia
Argentina
Venezuela
Uruguay
Mexiko
Alemania
Italia
Frantzia
Rusia
Bulgaria
Ukrania
Grezia
Israel
...

04

BERAIEKIN EGITEN DUTE POSIBLE

Eskerrik asko CIMASUBren 45 edizioengatik, 45 urteko betetako ametsengatik eta 45 urteko maitasunagatik eta urdin handiarekiko errespetuagatik.

Norabide berean arraun egiteko gidaritzapean, itsasoarekiko errespetua eta maitasunaren lelopean, urtero, babesle eta kolaboratzaile berriak CIMASUBren familiarekin bat egiten dute. Aurten, **Brai Kantauri**, **Crusoe Treasure Upeltegiak**, **Garbera Merkataritza Gunea** eta **Zarauzko Udalari** ongietorria emateko ohorea izan dugu.

Gure esker ona urte osoan zehar gure lehiaketa ahalbidetzeko lan egiten aritu den **Real Sociedad urpeko talde** osoari. Hauekin batera, gure esker ona zabaltu nahi diegu ain zaila den balorazioa egiten ausartzen diren epaileei, halaber, **Carlos Villoch**, **Carlos Minguell**, **José Luis González**, **Esteban Toré**, **Jesús Insausti**, **Verónica Mateos** eta **Iker Zubillaga**.

Realeko Urpeko Jardueren sekziotik, antolatzaile gisa, eskerrak eman nahi dizkiegu urtero CIMASUBek argia ikustea ahalbidetzen duten babesle eta kolaboratzaile guztiei, gure planetan zehar hain bidaia zoragarria egiteko ametsa errealtate bihurtzen dutenak, sentsibiltate berezia transmititu eta zabaltzeko helburuarekin.



antolatzailea | organizador



Futboleko Real Sociedad-aren
Itsaspeko Jardueren Saila
Sección de Actividades Subacuáticas
de la Real Sociedad de Fútbol

babesleak | patrocinadores



erakundeak | instituciones



laguntzaileak | colaboradores



Ayuntamiento Udal



EIBARKO UDALA



Donostiako
Nazioarteko Itsaspeko
Zinema Zikloa

cimasub

Ciclo Internacional de
Cine Submarino de
Donostia-San Sebastián

05

HELBURUAK ETA NOBEDADEAK



Urte osoan zehar lan egitea leku gehiagotara iristeko eta kontzientiazio ekologikoaren mezua jende gehiagori helarazteko.



Kontzientiazio ekologikoari buruzko mezua, aurkeztutako lanak saritzeko eta haien balioa handitzeko orduan kontutan hartuta.



Gero eta lehiaketa erakargarriagoa sortzea zentzu guztietan.

Lan gehiago eta kalitate handiagokoak erakartzea, sariak handituz eta hobetuz.

Publiko gehiago finkatzea, proposamen erakargarriagoa eta kalitate handiagokoa eskeiniz.

Itsaspeko irudigintzaren sektorean ospe handia duten pertsonak gure hirira erakartzea.



Urpekaritza ezagutaraztea eta itsasoarekiko maitasuna transmititzea, urpekaritza-bataioak eta itsasoarekin lotutako jarduerak antolatuz.



Itsas hondoak garbitzeko eta kontzientziatzeko beste proiektu batzuekin bat egitea.



06

BISITARI OSPETSUAK

Bernard Delemotte, ingeniaria, urpekaritza zuzendaria, errealizadorea eta urpeko kamera, **Jacques Cousteau** komandantearen lankidea hogeitaz **Calypso** ontzian. **Francisco Pizarro** saria eman zien **Jorge Candán** errealizadoreari eta **Pilar Barros** bere taldekide eta emakumeari, hiru aldiz munduko txapeldun izan baitira bideosuben.

Daniel Aldaya, **Laura Madrueño**, **Silvia Jiménez** eta **Álvaro Puerto** urrezko baranda dokumentaletan, «Rumbo al pasado» lanagatik, eta kazetaritza-lan onena, «Historia de un pecio» lanagatik. **Enrique Talledo**, zilarrezko baranda dokumentaletan eta Kantauriko lanik onena, «Cantábrico Salvaje» filmagatik.

Lokuzioa duten film laburretan, **Vicente Leal**, urrezko baranda, "Fragile" lanagatik. **Víctor Sánchez**, zilarrezko baranda: «Themba» lanagatik. **Jose Carlos Rando**, brontzezko baranda "Mediterraneo" lanagatik. **Alex del Olmoren** familia, urrezko, zilarrezko eta brontzezko barandak, film labur musikal onenei, "Berharap", "Triton Bay" eta "Janji". **Héctor Ripollés** eta **Lledó Bernat**, epaimahaiaren aipamen berezia "El Mediterraneo" lanagatik. **Isaias Cruz**, Kantauriko galeriarik onena. **Ramón Hernández Martín**, promesa gaztearen saria.

Sari-banaketan lagun izan genituen **Asier Olano**, Subacuática Real Sociedad elkarteko presidentea, **Asier Oyarzabal** eta **Ruth Morcillo** Brai Kantauri, Siempre AdELAnte Elkarteko **Jaime Caballero**, **Javier Mendoza** GUIFeko presidentea, **José Ignacio Espel** Aquariumeko presidentea, **Rol Freeman** Aolde Radiokoa, **Enrique Rubio** eta **Ángela Ollé** Ondina eta Oceanic, **Borja Sarachouse** Crusoe treasure eta **Maite Azkoaga** Real Sociadadeko Fundaziokoa.



07 GURE PROPOSAMENA

Bidaia ahaztezina planetako urpeko hondo ikusgarrienetan barrena; bertan, zuzenean sentituko dituzu gure itsasoek bizi duten une latzaren irudirik zirraragarrienak, gizakiak eragindako sufrimenduaren ondorioz.

Hiru proiektzio sesio +INFO

Hilaren 18, 19 eta 20an egin zen Donostiako Antzoki Zaharrean. 27 film labur eta 3 dokumental proiektatu ziren ordu eta erdiko saioetan.

Txikizikloa familian +INFO

Familia osoa ohartarazteko, guztion esku dagoela klima-aldaketa arintzen eta gure itsaso eta ozeanoak salbatzen laguntzea. Hezkuntza da irtenbidea. Horregatik, ahalegin guztia egiten dugu txikienengana iristeko.

Txikizikloa ikastetxeentzat +INFO

Gure lehiaketako zutabe garrantzitsu bat haurrentzat zuzendutako Urpeko TXIKIZIKLOA da, etorkizun ekologiko zaila utziko diegu eta zalantzarik gabe azken itxaropena dira, sentiberatasun-aldaketaren eragile izango direnak.

Argazki erakusketa +INFO

Erakusketa urte osoan zehar ahalik eta egun gehienetan eta ahalik eta leku gehienetan zabalik izatea da helburua. 24 argazkiren ampliazioak, itsaspeko hondorik ikusgarrienen eta kaltetuenetan barrena eramaten gaituztenak.



08 PALMARESA

Eskerrak eman nahi dizkiegu beren lanak gure 45. edizioko lehiaketara bidali dituzten parte-hartzaile guztiei. Zuek posible egiten duzue CIMASUB urtero aniztasun eta kalitate gaitzietako lehiaketa izatea. Bisitatzen gaituzten eta urtero hazten diren ikusleek oso ondo baloratutako lanez betea. Eta zorionak ematen dizkiegu CIMASUB 2021ean aurkeztu ahal izateak harrotzen gaituen kalitate bikaineko lanak egin dituzten irabazleei.

Documentalak: 1º Rumbo al pasado, Daniel Aldaya. 2º Cantábrico Salvaje, Enrique Talledo. 3º Islas Canarias - Refugio de mantelinas, Felipe Ravina.

Labur metraiak ahotsarekin: 1º Fragile, Vicente Leal. 2º Themba, Víctor Sánchez. 3º Mediterráneo, José Carlos Rando.

Labur metrai musikalak: 1º Berharap, 2º Triton Bay, 3º Janji, Alex del Olmo y Lidia Martínez-Seara.

Sari bereziak: Premio Francisco Pizarro: Jorge J. Candán. Cantábrico Salvaje, Enrique Talledo. Islas Canarias - Refugio de mantelinas, Felipe Ravina. Historia de un pecio, Daniel Aldaya. Freaks, Julie Ouimet (Canadá). Sebadales, Felipe Ravina.

Epaileen aipamen bereziak: Beacons of hope, Simone Piccoli (Italia). Sint Eustatius Statia, Franck Fougère (Francia). Mediterráneo, Hector Ripollés y Lledó Bernat. Underwater tours, Juan Raya Rodríguez.

Argazkiak: 1º Nicholas Samaras (Grecia). 2º Rafael Fernández. 3º Víctor Daniel Núñez. Isaías Cruz, Gaetano Gargiulo (Australia). Plamena Mileva (Bulgaria), Ramón Hernández Martín.

 +INFO *Palmares guztia cimasub.com orrialdean*


cimasub



09 URTEKO AGENDA

- 📍 **LASARTE-ORIA** · Otsaila
3 proiektzio sesio, 3 Txikiziklo eta Argazki erakusketa.
- 📍 **HONDARRIBIA** · Martxoa
2 proiektzio sesio.
- 📍 **DONOSTIA - TABAKALERA** · Martxoa
Katalina Erauso Arte Klubarentzako kontzientziazio ekologikoari buruzko hitzaldia.
- 📍 **ZARAUTZ** · Ekaina
3 proiektzio sesio eta Argazki.
- 📍 **ERRETERIA** · Ekaina
3 proiektzio sesio eta 2 Txikiziklo.
- 📍 **ONDARROA** · Uztaila
1 proiektzio sesio Mater itsasontzi-museo ekoaktiboan.
- 📍 **GARBERA** · Iraila eta Urria
1 Argazki erakusketa.
- 📍 **ZUMAIA** · Urria
1 proiektzio sesio, 1 Txikiziklo eta Argazki erakusketa.
- 📍 **DONOSTIA – OKENDO KULTUR ETXEA** · Azaroa
Helduen Hitza elkarterako kontzientziazio ekologikoari buruzko hitzaldia.
- 📍 **DONOSTIA – TOPALEKU AIETE** · Azaroa
Helduen Hitza elkarterako kontzientziazio ekologikoari buruzko hitzaldia.
- 📍 **DONOSTIA – CIMASUB 2021** · Azaroa
3 proiektzio sesio Teatro Principal aretoan eta 6 Txikiziklo Aquariumean.
- 📍 **EIBAR** · Abendua
3 proiektzio sesio, 2 Txikiziklo eta Argazki Erakusketa.



10 BESTE AKINTZA BATZUK



Urpekaritzako bataioak

Urpekaritzaren kirola ezagutarazteko eta urpekari eta itsasazale berrien jaiotzari bide emateko asmoz, urpekaritzako bataio-jardunaldiak antolatu genituen. Donostiako Txikizikloan egindako lehiaketan saritutako 10 eta 12 urte bitarteko haurrek parte hartu zuten. Bataioak Elorsoro Kirodegiko igerilekuan egin ziren (BPXport Oiartzun) eta Real Sociedad de Fútbol-eko Urpeko Jardueren sekzioko urpekaritza eskolako taldeak koordinatu zituen.



Kontzientziazio ekologikoari buruzko hitzaldiak

Edizio honetan, hainbat hitzaldi egin ditugu urpeko bizitzari eta haren babesari buruz. "Jaten dugun arraina eta beste animalia batzuk" eta "Zabor artean murgilduz" izenburuekin, gure lankide Luis Martinezek, urpekaritza irakasle eta naturaren maitaleak, eman ditu, Donostiako bi elkarterentzat: Catalina Erauso Arte Kluba eta Helduen Hitza Elkarteak.



Itsas hondoen garbiketak

Subacuáticas Real Sociedad-eko urpekari bolondresen taldearen ekimenez, urpeko garbiketen jardunaldi ugari antolatu dira urtean zehar. Gainera, kontzientziazio ekologikoarekin eta gure itsasoaren garbitasunarekin lotutako beste proiektu batzuetan ere parte hartu dugu, hala nola Itsas Gela Elkarteak (Mater) buru duten Zero Zabor Uretan eta Plastifisharen Kostera proiektuetan.

KOMUNIKABIDEETAN ZABALTZEA 11





Goranzko bidean jarraitzen dugu, eta urtetik urtera gure lehiaketaren publizitate-balioak gora egiten du komunikabideetan prentsa idatzian, irratian, telebistan eta interneten lortzen den inpaktuaren gorakadari esker.

Gure lehiaketan parte hartzen duten kolaboratzaileek, babesleek, erakundeek eta udalek oso positiboki baloratzen dituzte esperientzia eta lortutako emaitzak.



Estea honetan, gure lehiaketaren inguruan interneten izan ditugun argitalpen askoren zerrenda ikus dezakezu.





cimasub

Donostiako
Nazioarteko Itsaspeko
Zinema Zikloa

Ciclo Internacional de
Cine Submarino de
Donostia-San Sebastián